

## Euzkadi euskeratzeko bideak

Deia, 1977-09-02.

Euskaldunok, Euzkadi euskaldun bat nahi dugu.

Eta lehenbait lehen.

Baina, noiz eta nola lortu nahi dugun honek hauziak sortzen dizkigu.

Masimalistak gaur bertarako iraultza nahi dute, beste batzu bihar goizerako lor ahal izan genezaken Autonomia baten bila gabiltza. Herriak erabaki behar du hau, eta kondizionamendu askoren bide estuetatik.

Eta bideez gainera, etapak.

Eibar-era joateko, lehendabizi Malzaga-ra heldu behar dugu. Orain maiz erabiltzen den eta herritiar egin den esaldi hau egoera hontan ere aplikatu behar dugu.

Egia baita beti.

Eman dezagun, Estatuto baten bidez hizkuntza berpizteko ahalmenak gure esku geratzen direla. Nola jokatu?

Gu, demokratak gara. Ezin dugu gure herrian Franco'k euskerarekin egin duen gauza bera erderarekin egin. Batetik, behar ditugu gauza asko kontuan hartu. Baina, beste aldetik, ezin gara berezko milagroaren zain geratu.

Neurri batzu hartu beharko dira.

Aukerak ondo, zuzenki, baina zihurki, egin beharko dira.

Batzuk uste dute, inor ezertara behartu gabe, berez bezala, etorriko dela Euskera dagokion normalizazio batera, eta hau amets hutsa da. Euskera zabaltzen eta aberasten hasiko bada, behar ditu laguntza handiak: irakaskuntza, komunikabideak eta profesio eta lan batzuetarako derrigorrezko izatea.

Hau, neurri egokiz, baina zuhurrez.

Bestalde, eskualdetik eskualdera beharrezko diren bereizkuntzak ondo egin beharko dira: errejimenak ezin dira berdinak izan Erriberan eta Goiherrin, Iruñan eta Donostian. Europako beste herrietan egin diren esperientziak oso lagungarri izango zaizkigu: *estatuto pertsonala* eta *territoriala*, bereizketa ezagun bat bakarrik aitzateko.

Hau dena kontuan eduki behar da.

Baina hau ezin dugu inor mindu gabe egin.

Ahaleginean behar genuke gure problematika osoa ondo aztertu, realistak izan, gizona eta honen eskubide osoak kontuan hartu, baina ez *Herriaren eskubideak* kontuan ondo hartu gabe.

Eskubide hoiek zeintzuk diren erakustea da gure lanetako bat. Batez ere etorkinei. Jakin behar dute zergatik eta nola erori garan euskaldunak gaur gauden zulora, nola *bota* gaituzten.

Eta hau adierazteko gaur Iztuetaren exenplu bat jarri nahi dut argibide bezala:

Hara zor dion (grafia gaurkotuz) 1847an Gipuzkoaz:

"Probintzia labur honetako mugapean kontaktzen dira ehun eta hogeita mila arima bezalatsu; honetatik ehun mila bederik izango dira Euskara beste hizkuntzarik ez dakitenak; gainerantzeko hogeita mila-etan begira izan ez litezkean erdiak baino gehiago, Euskararen ugazume etorki arrotz, nongoak eta noren odolekoak diran berak ere ez dakitenak, eta azkenengo hamar milaetan ere izango dira gutxienez gaizki hitzegiten dutenak, bere buru harroak gizon handi eta jakintsu egiteagatik".

Ikus, beraz, 130 urtean nondik nora etorri garan.

Eta bidea: "izanik, bada, egia ziertoro hau begien aurrean argiro dakuskuna, ez da lotsagarri ez ezik, mingarri ere, Gipuzkoako Herri lehialetan gazteria eskolatzeko, hiztxo bat bakarra ere Euskaraz ez dakiten Maisu erdaldunak ifintea? Eta oraindik are olgarriagoa baizik ez da, eskolako haur gaixoai hitz bat Euzkaraz erortzen zaiotelako, beraren etsai ezagutuak dauden gizon herbesteko hoiek ematen diezaten azote gogorak ontzat ematea? Zer bada! Hain bekatu handia da Euskaldunai Euskarazko hitza jalkitzea?".

Hara euskera gainbehera botatzeko erabili diren bideetatik bat.

Ez dugu joera berdina justifikatzeko esaten.

Baina bai egi bidez gure beharrak erakusteko.

Ez dezan inork pentsa, euskera gaurkotzeko bideak inor mindu gabe egitekoak izango diranik.

Lapurretan aberastu denak ezin ditu bat-batean hemendik aurrerako moralitate-neurriak ezarri. Egitan asmo oneko bada, beharko du aurretik lehen ostu duena nolabait itzuli.